

LANBIDE HEZIKETA DUALA APLIKATZEKO ETA GARATZEKO JARRAIBIDEAK 2019-2020 IKASTURTEA

Lanbide Kualifikazio, Enpresa eta Enplegurako Zerbitzuak jarraibide hauek prestatu ditu, arau hauen osagarri: 1529/2012 Errege Dekretua, azaroaren 8koa (azaroaren 9ko EAO), zeinaren bidez garatzen baita prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua eta ezartzen baitira LANBIDE HEZIKETA DUALAREN oinarriak; 344/2017 EBAZPENA, abuztuaren 1ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez arautzen baita Nafarroako Foru Komunitatean Lanbide Heziketa Dualaren eskaintza berria ezartzeko prozedura 2017-2018 ikasturtean, eta 487/2019 EBAZPENA, abuztuaren 7koa (irailaren 6ko NAO), Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baitira hezkuntza sistemaren Lanbide Heziketako ikasketak ematen dituzten ikastetxe publikoen antolaketa eta funtzionamendua 2019-2020 ikasturtean arautzeko jarraibideak.

Zuzendaritza taldeek onetsiko dituzte beren ikastetxeetan prestakuntza duala ezartzeko prozesu osoa eta jarraian zehazten diren ekintza eta baldintzak:

1.- LANBIDE HEZIKETA DUALAREN PRESTAKUNTZA PROGRAMA EGITEKO TOKIAK

Ziklorako finkaturik dagoen curriculumak behar bezala garatzeko egokiak diren enpresa eta erakundeetan egingen da Lanbide Heziketa Dualaren prestakuntza programa.

Ikastetxeko tutorea izanen da, entitate laguntzaile bakoitza aurretik ezagututa, ikasle bakoitzari, bere ezaugarrien arabera, Lanbide Heziketa Duala egiteko lantokia esleitu diona. Ez da inola ere ikaslearen gain utziko bere prestakuntza tokia bilatzeko ekimena.

2.- ENPRESEKIN LANKIDETZA HITZARMENA FORMALIZATZEA.

Lanbide Heziketa Dualeko Prestakuntza programa egiteko berariazko lankidetzaren hitzarmenak honelakoak izanen dira:

- a) Prestakuntza kontratua egiten den kasuan, enpleguaren araudian ezarritakoa izanen da eta kopia sinplea igorriko da Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketa Dualaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren Atalera.
- b) Bekarekin egiten denean, hiru aletan formalizatuko da, eta enpresa edo erakunde laguntzailearen legezko ordezkariak eta ikastetxeko zuzendariak izenpetu beharko dute, Lanbide Heziketa Dualaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren Ataleko buruaren oniritziarekin, ezarritako ereduaren arabera. Hitzarmen horien gutxienezko iraupena

bi urtekoa izanen da izenpetzen direnetik, eta besterik gabe luzatu direla ulertuko da sinatzaileetako batek ere kontrakorik adierazi ezean.

Bi kasuetan ere “Ikaslea-Enpresa Harremana (IEH DUALA)” izeneko agiria ere egingen da eta bi ale bidaliko dira Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketa Dualaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren Atalera.

Hezkuntza Departamentuak enpresa edo entitate laguntzaile bakoitzean prestakuntza hau egiten ari diren ikasleen berri emanen dio Lan eta Immigrazio Ministerioaren Nafarroako Lurralde Zuzendaritzari.

Ikasleei lantokiak esleitu baino lehen, aurreko puntuetan adierazitako tramiteak egin behar dira.

3.- IKASLEEN ETA ENPRESA EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN ARTEKO HARREMANA

Lanbide Heziketa Dualaren prestakuntza programa egiteko berariazko lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz ikasleen eta enpresa edo erakunde laguntzaileen artean ezarritako harremanak ez du, inola ere, izaera juridiko laboralik edo funtzionarialik izanen.

Prestakuntza kontratua den kasuan, harreman horren izaera juridikoa dagokion araudian ezarritakoa izanen da.

Prestakuntza dualerako enpresan eta ikastetxean egin beharreko urteko orduen banaketa egingen da egutegi baten bidez, hilabetez hilabete, ezarritako ereduaren arabera. Eredua betetakoan, Enpresako Lanbide Heziketaren eta Etengabeko Prestakuntzaren Bulegoko arduradunari igorriko zaio, formatu digitalean, helbide honetara: fcentrot@navarra.es

Banaketa egiterakoan, ahal dela egun osoko lanaldiak zehaztuko dira ikastetxean zein enpresan egiteko. Halere, enpresan egingen den prestakuntza jardueraren lanaldia moldatu daiteke, ekoizpen prozesuaren edo zerbitzuaren premien arabera.

Ikasleak enpresan izanen duen lanaldia (Lanbide Heziketa Dualaren prestakuntza programa egiteko) eta asteko banaketa “Ikaslea-Enpresa Harremana (IEH duala)” izeneko agirian finkatuko dira. Enpresak izendatutako arduradunak kontrolatuko du horiek betetzen diren.

4.- LH DUALEKO TUTOREEN FUNTZIO ETA EGINKIZUNAK

4.1.- Enpresei eta ikasleei dagokienez:

- Enpresak bilatzea, ikastetxetik kanpoko jardueren arduradunarekin lankidetzan.
- Ikasleak aukeratzea eta enpresei esleitzea, ikastetxeko zuzendariaren oniritziarekin.
- Ikasle-enpresa harremanerako funtzionamendu arauak ezartzea.

4.2. – Prestakuntza programari dagokionez:

Ikasle bakoitzak eginen duen prestakuntza programak, erreferentzia gisa, heziketa ziklo bakoitzerako ezarritako curriculum hartuko du. Proiektu bakoitzean, moduluz modulu zehaztu behar da zeintzuk sartzen diren prestakuntza dualean eta zer ehunekotan.

Ikastetxeko tutoreak proposatuko ditu, kasuan kasuko heziketa zikloko irakasle taldearekin koordinaturik, ikasleak enpresan eginen dituen jarduera nagusiak eta lortzen ahalko dituen ikaskuntza emaitzak, eta adostuko ditu Lanbide Heziketa Dualaren prestakuntza programa eginen den entitate laguntzaileak horretarako izendatzen duen arduradunarekin.

Prestakuntza programan jasoko dira bai enpresak garatutako jarduerak eta ikaskuntza emaitzak, bai enpresako adituek eta ikastetxeko irakasleek elkarrekin garatutakoak. Gutxienez, enpresaren %33ko parte-hartzea ezarriko da prestakuntzan, prestakuntza modulu bakoitzaren eta enpresaren ezaugarrien arabera.

Prestakuntza modulu bakoitzeko irakaslea arduratuko da ikaslearen prestakuntza programaz eta ebaluazioaz eta, orobat, koordinazio lanak egiteaz zikloko irakasle taldearekin eta ikastetxeko prestakuntza dualaren tutorearekin, programazioa egokitzeke, betetzen dela zaintzeko eta ebaluatzeke.

Prestakuntza programan sartuko dira:

- Programazio didaktikoa.
- Ikasleen zein planaren beraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko plana.

Enpresan prestakuntza programa egin ondoren (prestakuntza duala), ezarritako ereduaren arabera, formatu digitalean igorriko da helbide honetara: fcentrot@navarra.es

4.3. – Ebaluazioari dagokionez:

- Ikasleena: Prestakuntza dualeko tutoreek prestakuntza moduluetakoa irakasleei lagunduko diete etengabeko prestakuntza egiten dutenean.
- Programarena: Tutoreek hiru hilean behin ebaluazio txostena eginen dute, hobekuntza proposamenak sartuz.

5.- LANBIDE HEZIKETA DUALAREN PRESTAKUNTZA PROGRAMARI JARRAIPENA EGITEA

Ikastetxeko eta enpresako prestakuntza dualeko tutoreek, enpresako erakusleek eta moduluetakoa irakasleek elkarrekin koordinatuta eginen dute lan prestakuntza programaren plangintzan, antolamenduan eta garapenean, enpresaren ezaugarriak eta heziketa zikloaren curriculum uztartzen dituen prestakuntza programa ezartze aldera.

Ikastetxeko tutoreak eta enpresako tutoreak behar diren komunikaziorako bideak ezarriko dituzte eta, halaber, komunikaziorako eta kontrolerako araubidea, ikasleen jarraipena eta ebaluazioa egokiak izan daitezten.

Ikastetxeko ikasketaburuak, departamentu didaktikoko buruarekin lankidetzan, egutegi bat eta laneko plan malgu bat prestatuko ditu, ahalbidetzeko ikastalde edo ikasgela bateko ikasleei modalitate honetan parte hartzea. Plan horretan irakasleen irakastorduak aldatzen

ahalko ditu prestakuntza dualaren antolakuntzaz arduratzen denak. Lan plan horrek, prestakuntza dualaren premia guztiak betetzeaz gain, ezarriko du zer lan egin behar dituzten irakasleek, aintzat hartuz ikasturte hasierako jarraibideek ezartzen dutena lantokiko prestakuntza egiten den bitartean orduak liberatzen dituzten irakasleendako.

6.- LANERATZEA

Hezkuntzako kontseilariak apirilaren 5ean emandako 34/2013 Foru Aginduak (apirilaren 29ko NAO) LANTOKIKO PRESTAKUNTZA MODULUaren garapena arautzen duen 45/2009 Foru Agindua aldatzen du eta, besteak beste, esaten du ikastetxe bakoitzak laburpen bat egin behar duela titulua eskuratu duten ikasleen eta haien laneratzearen gaineko datuekin.

Datu horiek, ikasketak aurreko ikasturtean (2018-2019) amaitu dituzten heziketa zikloetako tituludunenak, abenduaren 31 baino lehen igorri beharko dira Lanbide Heziketa Dualaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren Atalera, ikastetxeko zuzendariak berrikusi eta ontzat eman ondoren, ezarritako ereduaren arabera.

7.- LANBIDE HEZIKETA DUALAREN PRESTAKUNTZA PROGRAMA EGITEAN ENPRESAN GERTA DAITEZKEEN ISTRIPUAK.

Istripu bat gertatzen denean, ahalik eta lasterren jakinarazi behar zaio Lanbide Heziketa Dualaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren Atalari, istripu parteak egiteko ezarritako ereduaren arabera.

- **Eskola aseguruak estaltzen dituen ikasleak. (Egin beti eskola asegurua)**

Abuztuaren 13ko 2078/71 Dekretuaren arabera (1971-09-18ko EAO), "*praktikak egiten ari diren ikasleentzako istripu aseguruaren araubidea eskola aseguruaren arloko arau indardunek eta aseguru horren mutualitatearen estatutuek ezarritakoa izanen da*".

Eskola aseguruaren onuradun dira Europar Batasuneko herrialde guztietako nazionalitatea duten ikasleak eta Espainian legez bizi diren ikasle atzerritarrak, 28 urte baino gutxiago badute.

Zentzu honetan, garrantzitsua da eskola aseguruari dagokionez Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Zuzendaritza Probintzialak ematen dituen jarraibideei kasu egitea. Ikasle hauek Iruñeko **San Fermin Klinika** itunduan artatuko dituzte.

- **Eskola asegurutik kanpo gelditzen diren ikasleak.**

Ikasle asegurua aplikatzeko adin muga 28 urtekoa da. Eskola aseguruaren aplikazio eremutik kanpo daude, berariaz, aldi berean alta emanda daudenak Gizarte Segurantzaren araubideren batean, edota ISFAS, MUFACE edo MUJEJUn; horrelakoetan kasuan kasuko araubidetik jasoko dira prestazioak.

Prestakuntza kontratua duten ikasleak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartuta daude. Eskola asegurutik kanpo geldituko dira eta, istripu bat gertatzen bada, sare publikoko osasun etxeetan artatuak izanen dira.

Lanbide Heziketa Dualaren prestakuntza programa egiten duten eta beka bat (kontraprestazio ekonomikoa) jasotzen duten ikasleak, urriaren 24ko 1493/2001 Errege Dekretuaren arabera, besteren konturako langileen parekoak izanen dira Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartzearen ondorioetarako. Ikasle horiek eskola asegurutik kanpo gelditzen direnez, istripu bat dutenean sare publikoko ospitaleetan artatu behar dituzte.

Eskola aseguruak ez ditu estaltzen bizileku agiriak behar bezala izan gabe ikastetxeetan sartzen diren ikasle etorkinak, beraz, istripu bat dutenean sare publikoko ospitaleetan artatu behar dituzte.

Eskola aseguruak estaltzen ez duen ikasle bat osasun zentro batean artatzen badute eta osasun zentroak dagokion **faktura** egiten badu, fakturak ikaslearen izenean egon beharko du. Kasu horietan, ikastetxeko tutorea arduratuko da Enpresako Lanbide Heziketaren eta Etengabeko Prestakuntzaren Bulegora igortzeaz, Hezkuntza Departamentuak kontratatutako polizaren bidez ordain dadin.

8.- IKASLEEN ERANTZUKIZUN ZIBILA.

Prestakuntza dualeko ikasle guztiek erantzukizun zibileko aseguruia izan behar dute, enpresetan eragin ditzaketen balizko kalteak estaltzeko.

Balizko gorabeherak berehala jakinarazi behar zaizkio Lanbide Heziketa Dualaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren Atalari, dagokionean, behar diren kudeaketa tramiteei ekiteko.

9.- KUDEAKETA GASTUAK

Ikastetxeko Gastuen Aurrekontuan behar diren zenbatekoak zehaztuko dira jarraibide honetan aipatzen diren jardueretatik datozen gastuei aurre egiteko.

Zenbateko horiek berariaz erabiliko dira ikasleek enpresa edo erakundeetan ematen dituzten prestakuntza aldien programazioak, jarraipenak, kontrolak eta ebaluazioak sortzen dituen gastuak ordaintzeko, bai eta erantzukizun zibileko polizan ezarritako frankiziari aurre egiteko ere.

10.- INTERESDUNENDAKO INFORMAZIOA.

Ikastetxeek aldeztatik eman behar diete jarraibide hauen edukia berri, eragiten dieten alderdi guztiei dagokienez, Lanbide Heziketa Dualaren prestakuntza programa egin behar duten ikasleei, ikastetxetako tutoreei eta ikasleok hartuko dituzten enpresa edo erakundeek.

11.- DOKUMENTUEN TRAMITAZIOA.

Lanbide Heziketa Dualaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren Atalak jarraibide zehatzak emanen ditu Lanbide Heziketa Dualaren prestakuntza programarekin loturiko dokumentuak behar bezala tramitatzeko.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 22an